

Funtsezko Jarduerak

Lehendabizi programa garatzea izango zen garrantzitsuena; behin hori eginda, esandako atal guztiak gehitu beharko litzateke gure aplikazioan; hau da, matematikako gai guztien informazioa sartu beharko genuke gure aplikazioaren zirkuituetan. Izan daiteke, beste enpresa bateri laguntza eskatzea programazio lanetan edo informatikari on bat kontratatzea aplikazioa era egokian sortzeko; oso zaila bait da profesionalik gabe horrelako programa bat garatzea.



Guk, zerbitzu bat eskaintzen dugu, (irakasle online-a). Irakasle hori programa bat izango da eta matematika arloan informazioa izango du bere barne zirkuituetan. Horrela, bezero pribatu batek edo ikastetxe batek gure aplikazioa erosten badu, zalantzak argitu ahal izango ditu ulertzen ez dituzten ariketetan eta klasearen erritmoa jarraitu ahal izango dute. Gure aplikazioak balio bat izango du. Gure helburu nagusia, mozkina maximizatzeaz gain, ikasleei laguntzea da.



Instagram bat eta webgune bat izango ditugu gure produktua promozionatzeko eta ekarpen berriak argitaratzeko. Hortaz gain, webgunean zalantzak argitu ahal izango dituzte bezeroek (aplikazioaren funtzionamentuaren informazioa egongo da) eta beraien zalantza internet bitartez ezin bada konpondu denda fisiko bat edukiko dugu beraien zalantzak argitu ahal izateko. Sareko eta Plataformetako jardueretan Ibon jardungo da zuzendari tekniko gisa aplikazioa hobetzen eta promozionatzen, berak langileei proposamenak egingo dizkie beraien lana nola egin jakiteko. Faben langileak zuzentzen ibiliko da gure informatikoei lana zuzen egin dezaten.



Bakoitzak Enpresan Egingo Duena:

Nerea→ Marketing Antolatzailea: Marketineko koordinatzaile lanetan arituko denez, marketineko planak eta estrategiak garatu eta gauzatzen ditu, lotura gisa bat izango du langileekin, hornitzaileekin eta bezeroekin. Halaber, Marketineko, Brandingeko eta Publizitateko jarduerak planifikatzen, inplementatzen eta monitorizatzen lagunduko du, markaren irudia hobetzeko eta bezeroaren gogobetetasuna areagotzeko.

Ibon→ Zuzendari Teknikoa: Internet eta informatika kanala landuko dituen pertsona izango da. Web orrialdearen diseinadorea eta edozein arazo tekniko konpoduko dituen langilea.

Faben→ Koordinatzailea izango da, langilean zuzenduko ditu eta beraien etekin handiena ateratzen saiatuko da.

Paul→ Harreman Publikoak: Egin beharreko lana, sortutako zerbitzua saltzea eta bezeroek eros dezatela da.

Zer egingo dugu arazoak konpontzeko?

Bezeroekin arazoak konpontzeko telefono bat jarriko dugu beraien deitu ahal izateko eta beraien zalantzak argitzeko. Hortaz gain, aplikazioak arazo bat izanez gero; adibidez, webgunea gelditzea, aditu bat izango dugu gure enpresan arazo horiek konpontzeko.

